




Brasildar emakumeak soldadutzaren aurka



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Mossoró (Brasil), 1875eko abuztuaren 30a. 300 emakume inguruk, harriak, labanak, lapikoak eta etxeko beste hainbat objektu eskutan, hiriko kaleak hartu zituzten, errekrutatze militarren kontra. Urte berean, dekretu inperial bat onartu zuten gudarosterako nahiz itsas armadarako errekrutatzea arautzeko; beste modu batera esanda, gobernuak derrigorrezko soldadutza jarri zuen indarrean. Horregatik emakume matxinatuek Santa Luzia elizara jo zuten, hantxe baitzeuden errekrutatze zerrendak, eta orriak puskatu zituzten. Ondoren, tokiko egunkariaren erredakziora joan ziren, han argitaratutako errekrutatze iragarkien aurka egiteko.

Urte batzuk lehenago Paraguaiko Gerrak (1864-1870) agerian utzi zuen Brasilgo armadaren antolaketa eta prestakuntza falta. Horregatik erabaki zuten derrigorrezko soldadutza indarrean jarri eta armada indartsuago baten oinarriak ipintzea. Herritarrek, ordea, bestelako ondorioak atera zituzten gatazka odoltsutik, brasildar soldadu asko hil eta zauritu baitzituzten bertan.

Mossorókoa ez zen protestaldi bakarra izan. Abuztu hasieran, Ariesen eliza eraso eta errekrutatze zerrendak suntsitu zituzten; Canguaretaman ere eliza hartu zuten eta 16 zauritu utzi zituen polizia militarren interbentzioak; Goianinhan ere liskarrak egon ziren... Luís da Câmara Cascudo (1898-1986) historialariaren arabera, "gertakari hauetan guztietan,



ISAIAS MEDEIROS

emakumeak izan ziren gogotsuen aritu zirenak haien semeak, senarrak eta senargaiak defendatzen".

Baina emakume haiek beren burua ere defendatzen ari ziren, gerratan frontera eramatzen zituzten gizonezkoak biktimak zuzenak izan arren, gatazken ondorioz alargunduta, zaurituak zaintzen eta komunitateak ekonomikoki eusten geratu izan direnak emakumeak baitira.

Mossoróko matxinada Polizia Militarrek itzali zuen. Emakumeek polizien erasoari aurre egin zioten hasieran, baina hainbat protestari zauritu ondoren, herri-


ko agintarien bitartekaritzak geldiarazi zituen liskarrak. Hala, emakumeek matxinada piztu zen egun berean itzali zen, eta errekrutatze legean ez zuen inolako eraginik izan; derrigorrezko soldadutzak indarrean jarraitu zuen.

Baina matxinada ez zen alferrikakoa izan Deoclecio Evaristo de Oliveira Júnior Mossoróko Museoko artxibozainaren iritziz: "Matxinada garrantzitsua izan zen erakutsi zuelako, garai hartan ere, emakumeak antolatzeke gai zirela, eta, elkarrekin, gobernuaren aurka egiteko gai zirela". ●

Nola begiratzen zieten izarrei?

Raoul Schrott filologo austriarrak 17 kultura eta zibilizazioen zeruko atlasa bildu berri du *Atlas der Sternenhimmel und Schöpfungs mythen der Menschheit* (Zeru izartuaren atlasa gizakien sorreraren mitoak) lan mardulean. Maiek, inkek, boskimanoek, inuitek... beren kosmobisioa zuten. Hartz Handia nifab

zen batzuentzat, eta elur-orein bat beste batzuentzat. Egilearen asmoa ez zen izarrak ulertzea, haiek gordetzen dituzten "gizakien istorio txikiak, mitoak eta ipuinak jasotzea baizik". Eta, hala, atlas honek zeruko izarrez baino gehiago izar horiei begiratzen zieten lurtarrei buruz hitz egiten du. ●



HEIDI SORG (HANSER, MUNICH)